

BELDUR BARIK LEHIAKETA 2012



BELDUR BARIK JARRERA LEHIAKETAREN OINARRIAK

1. GAIA ETA PROIEKTU MOTAK

BERDINSAREAK Beldur Barik Jarrera! sariaren 3. edizioa deitu du. Lehiaketa honetan, emakumeek jasaten duten bereizkeria-egoerari aurre egiten dioten neska-mutilen arte-adierazpen mota oro onartu, baloratu eta bultzatuko da. Lan horiek errespetuan, berdintasunean, askatasunean eta autonomian, erantzukizun-kidetzan eta indarkeria sexistaren gaitzespen irmoan oinarritutako jokabide eta jarrerak izan behar dituzte.

Parte hartzen duten proiektuek Beldur Barik jarrera islatu behar dute. Emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak gainditzeko, eta harreman libre, errespetuzko, parekide, dibertso eta ez-sexistak eraikitze konpromiso pertsonal eta kolektiboa erakutsi behar dute. Kalitate teknikoaren gaitetik, mezuaren kalitatea baloratuko da, nesken jabekuntzatik gogoetak eta eztabaidak sortzeko gaitasuna, eta mutilen matxismoaren aurkako konpromisoa. Proposamenek indarkeriaz hitz egitean ematen diren estereotipoak gainditu ditzatela baloratuko da, hau da, bikotearen testuinguruan indarkeria fisiko hutsa islatzen ez dutenak, baizik eta bestelako indarkeria eta bazterketa mota batzuk agerrarazten dituztenak, dramatik ihes egiten dutenak, eta emakumea biktima anulatu gisa erakusten ez dituztenak.

Era berean, proposamenen originaltasuna eta freskotasuna kontuan izango dira, bai gaian, bai tonuan, bai mezuak adierazteko moduan.

Adierazpide mota oro onartuko da, baina betiere bideo formatuan aurkeztuta: film laburra, bideoklipa, lipduba, dantza, errezitatutako poemak edo kameraren aurrean irakurritako gogoetak, bideo proiektuak, argazkiak edo artelanak erakustea, hiri inguruko performanceak eta esku hartzeak eta abar.

2. PARTE HARTZAILEAK

Euskal Autonomia Erkidegoko 12 eta 26 urte arteko neska-mutilek parte hartu ahal dute, bi kategoriatan:

1. kategoria: 12 – 17 urte

2. kategoria: 18 – 26 urte

Banaka edo taldeka parte hartu ahal da, ikastetxe gisa edo ikasgela gisa. Taldearen barruko norbaitek 18 urte edo gehiago badauzka, proiektua 2. kategorian sartuko da zuzenean.

Lehiaketan parte hartzen duten 18 urtetik beherako gazteek oinarri hauen 1. eranskina bete eta eman behar dute.

3. AURKEZTU AHAL DEN PROIEKTU KOPURUA

Gehienez 3 proiektu aurkeztu ahal dira.

4. AURKEZTEN DIREN PROIEKTUEK BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZAK

Proposamenak originalak izan behar dira, hau da, inori plagiatu edo kendu gabe.

Beste jaialdi edo lehiaketa batzuetan aurkeztutako proiektuak ezin dira hemen aurkeztu.

Euskaraz, gaztelaniaz, bietan, edo beste hizkuntza batean aurkeztu ahal dira (azken kasu horretan, euskarazko edo gaztelaniazko azpigituluekin).

Proiektuek gehienez 10 minutu iraungo dute.

Egile-eskubiderik gabeko musikak erabiltzea gomendatzen dugu (hau da, copyleft lizentzia daukatenak, edo zuek sortuak direnak). Egile-eskubideak dituen abesti bat erabiliz gero, parte hartzaileak bere gain hartu behar du Youtube-k bideoaren aurkako neurriak hartzeko arriskua.

Proiektu guztiak ikus-entzunezko formatuan aurkeztu behar dira, bideo-plataforma baten esteka emanaz (Youtube, Vimeo, Blip etab).

5. NOLA PARTE HARTU

Deialdi honetan parte hartu nahi duten pertsonak proposamena e-mail bidez bidali behar dute jarrera@beldurbarik.org helbidera, informazio hau adieraziz:

Parte hartzen duen kategoria:

Proiektuaren izenburua:

Proiektuaren esteka:

Egilea (izena, sexua, adina):

Taldea (taldeko osagaien izenak, eta bakoitzaren sexua eta adina):

Harremanetarako pertsona:

Helbidea, herria eta probintzia:

Telefonoa:

Emaila:

Webgunea & Facebook & Tuenti (nahi izanez gero):

*Ikasgela edo ikastetxe gisa parte hartuz gero, beharrezkoa da ikastetxea, udalerria eta maila zehaztea. Ikastetxeak kudeatuko ditu adingabekoen baimenak.

*Pertsona edo taldearen izena, kategoria eta udalerria jarri behar dira, bideoaren barruan edota dagokion plataformaren (Youtube, Vimeo, etab) deskribapenean.

Sari orokorraz gain, udalerriek tokian tokiko proposamen onenak saritu ditzakete, edo hainbat ekimenen bidez sari espezifikoak zehaztu, aukeratutako proposamenak bultzatzeko eta sustateko. Horregatik EIBARREN:

“EIBAR BELDUR BARIK” 2012ko SARIA: Eibar erroldatutako pertsonentzat Izen-ematea: Eibar Beldur Barik lehiaketako partaideek posta elektronikoz bidali beharko dute proposamena berdintasuna@eibar.net helbidera, beste kopia bat jarrera@beldurbarik.org helbidera bidaliz.

6. IZENA EMATEKO EPEA

Lehiaketan izena emateko epea ekainaren 11n hasiko da eta urriaren 31n amaitu (biak barne).

7. SARIAK EUSKADI MAILAN

1. kategoriako saria: 1.000 €

2. kategoriako saria: 1.000 €

Jendearen saria*: 300 €

Udalerrri bakoitzak antolatzen dituen lehiaketak edo sariak ez dira oztopo izango lehiaketa honetan parte hartu ahal izateko.

*Bi kategorietan aurkeztutako lanen artean aukeratzen den bati emango zaio jendearen saria.

EIBAR BELDUR BARIK 2012

Sariak:

1. kategoria: 12-17 urte: 300 €

2. kategoria: 18-26 urte: 300 €

Sari hauek irabazteak ez du lehiaketa orokorreko sariak ere irabaztea galaraziko.

8. EPAIMAHAIA

Antolaketak epaimahai bat izendatuko du. Epaimahaia osatzen duten pertsonak ondokoak izango dira: proiektu honi lotutako erakundeen ordezkariak; sormenaren, kulturaren eta hezkuntzaren munduetan eta berdintasun politiken alde eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako borrokan aritzen diren emakume feministak; eta 2011ko edizioko irabazleak (urte horretako parte hartzaileen ordezkari gisa). Epaimahaiko kideak Beldur Barik-en webgunean aipatuko dira.

EIBAR BELBUR BARIK 2012

Antolatzaileek toki mailan artearekin, berdintasun politiken sustapenarekin eta emakumeenganako biolentziaren kontrako borrokarekin zerikusia duten pertsonen osatutako epaimahaia izendatuko dute. Epaia ezagutzera ematen den unean emango da jakitera nortzuk diren. Epaimahaikoek herriko lan guztiak aztertuko dituzte, saria eman gabe ere utz dezaketelarik.

9. EPAIA

Proiektuak aurkezteko epea amaitutakoan, epaimahaiak bi kategorietan aurkeztu diren lanei buruz eztabaidatuko du. Epaia azaroaren 24an jakinaraziko du, Beldur Barik topaketetan.

Jendearen saria www.beldurbarik.org webgunean bi kategorietan botorik gehien jasotzen duen bideoari emango zaio. Bozketa sistema azaroaren 6an aktibatuko da, goizeko 8etan. Bideo guztiak webgunean ikusi ahal izango dira. Bideoak iritsi ahala igoko dira.

Bi fase egongo dira:

1. FASEA: Lehiatzeko aurkezten diren bideo guztietatik, azaroaren 6aren eta 13aren artean boto gehien jasotzen duten hamar bideoak (24:00etan) bigarren txanpara igaroko dira.

2. FASEA: Hamar bideoek kanpaina biziagotu ahalko dute, azaroaren 15, 16, 17 eta 18an boto gehiago lortzeko. Azaroaren 18ko gaueko 12etan boto gehien duenak irabaziko du saria.

Bozketa Beldur Bariken webgunean jarraitu ahalko da eta Facebook, Tuenti eta Twitterren zabalduko da.

Prozesuan irregulartasunik atzematen bada, jendearen saria hutsik geratu ahalko da.

Epaimahaiaren erabakiei ezin zaie aurka egin.

Gainera, epaimahaiak zenbait proposamen aukera ditzake Beldur Bariken espazioetan bultzatzeko eta sustatzeko.

Lan guztiak azaroaren 24ko Topaketan erakutsiko dira.

EIBAR BELBUR BARIK 2012

Azaroaren 22an, Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko egunaren testu inguruan, Portalean, Areto Nagusian EIBAR BELDUR BARIK Jaialdia izango da, non herriko lanak aurkeztu eta epaia ezagutzera emango den, herri-mailako sariak ere banatuz. Antolatzaileek hala eskatuz gero, herri-mailako lehiaketan parte hartu duten pertsona guztiek beren obra jaialdi honetan erakusteko edo aurkezteko konpromisoa hartzen dute.

10. LEGE-ALDERDIAK

Lehiaketako parte hartzaileek beren proiektuen komunikazio publikorako, erreproduktzioarako, hedapenerako eta eraldaketarako eskubideak dohainik lagatzen dituzte, Beldur Bariken katalogoetan, karteletan edota sustapen-piezetan jartzeko, baita proposamenak www.beldurbarik.org webgunean eta sare sozialetako komunikazio kanalean erakusteko ere, maila globalean nahiz tokiko mailan.

Antolatzaileek eskatzen badute, parte hartzaileek beren lan edo proposamena Beldur Barik Topaketan erakutsi, antzeztu edo aurkeztuko dute.

Lehiaketako antolatzaileek ez dute erantzukizunik bere gain hartuko baldin eta bidaltzen zaizkion proposamenetan inoren egile-eskubideak urratzen badira; bideoa bidali dutenek izango dute erantzukizun osoa, erreklamaziorik baldin badago. Era berean, parte hartzaileek beren egiletza frogatu beharko dute antolatzaileek hala eskatuz gero.

Lehiaketaren antolatzaileek sariak hutsik utz ditzakete.

Deialdi honetan Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legea aplikatuko da.

BERDINSAREAK, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betez, jakinarazten dizu zuk emandako datu pertsonalak erakunde honen jabetzako datu pertsonalen fitxategi automatizatuetan sartuko direla. Fitxategi horien helburua udal kudeaketako berezko lanak egitea da, bere eskumenen eremuan. Nahi baduzu, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak gauzatu ahal dituzu, helbide honetara joaz: jarrera@beldurbarik.org

11. ANTOLAKETA

BERDINSAREAK (Berdintasunaren aldeko eta Emakumeen aurkako Indarkeriaren aurkako Euskal Udalerrien Sareak) antolatuta; EUDELeK bultzatua; Emakunderen, Eusko Jaurlaritzako Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta egiteko Zuzendaritzaren, eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru

Aldundien babesarekin; eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren, Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) eta EITBren lankidetzarekin.

Informazio gehiago hemen:

www.beldurbarik.org

jarrera@beldurbarik.org

Sartu harremanetan Eudelekin:

944.231.500

639.702.767

EIBAR BELBUR BARIK 2012

Informazio gehiagorako:

BERDINTASUN ARLOA

Bista Eder Kalea, 10, 4. Pisua EIBAR 20600

Tel: 943708440

Faxa: 943708441

e-mail: berdintasuna@eibar.net

ANDRETXEA

Zezenbide Kalea, 9

Tel.: 943700828

e-mail: andretxea@gmail.com

<http://andretxea.kzcomunidades.net/>

<http://www.eibar.es/>

1. ERANSKINA.

GURASOEN EDO TUTOREAREN BAIMENA ADINGABEKOEK BELDUR BARIK LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO

..... andreak/jaunak, adinez nagusi, zenbakidun NAN duena, eta jaunak/andreak, adinez nagusi, zenbakidun NAN duena, helbidean dutenak, telefono zenbakiarekin, adingabekoaren (..... urte dituen etae-maila duena) ama / aita (edo tutore), eta beraz, legezko ordezkari, diren aldetik

ADIERAZTEN DUGU

Ohorerako, Norbanakoaren eta Familiaren Intimotasunerako eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilar buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan ezarritakoa betetzeko

BAIMENA EMATEN DIOGU, BERARIAZ, gure alabari/semeari, Beldur Barik Lehiaketan parte hartzeko, emakumeen aurkako indarkeriaren prebentziorako, eta lehiaketaren oinarriak onartzen ditugu.

Hori guztia sinatzen dugu, geure adostasuna adierazteko

.....n,(e)koaren(e)(a)n

* Gaztearen guraso-ahala duten pertsonak baimena sinatu behar dute (bi badira, biek; zaintza eta babespea guraso bakarrak badauzka, nahikoa da beraren baimena). Izatezko edo zuzenbidezko banantzeen eta dibortzioen kasuetan, zaintza eta babespea dagozkion pertsonak sinatu beharko du.

BASES CONCURSO BELDUR BARIK JARRERA

1. TEMÁTICA Y TIPOS DE PROYECTOS

BERDINSAREA convoca la 3ª edición del premio Beldur Barik Jarrera! con la finalidad de reconocer, valorar e impulsar todo tipo de expresiones artísticas que muestren cómo chicas y chicos enfrentan la actual situación de desigualdad hacia las mujeres con actitudes y comportamientos basados en el respeto, la igualdad, la libertad y autonomía, la corresponsabilidad y el firme rechazo a la violencia sexista.

Los proyectos participantes deben plasmar la actitud Beldur Barik, reflejando el compromiso personal y colectivo para superar las diferentes formas de violencia hacia las mujeres y para construir unas relaciones libres, respetuosas, igualitarias, diversas y no sexistas. Por encima de la calidad técnica o artística, se valorará la calidad del mensaje, su capacidad para generar reflexiones y debates desde el empoderamiento de las chicas y el compromiso contra el machismo de los chicos. Se valorará que las propuestas superen los estereotipos en los que se incurre al hablar de violencia, que no se ciñan a la violencia física en el contexto de la pareja (sino que visibilicen otras formas de violencia y discriminación), que huyan del drama y que no reduzcan a las mujeres a víctimas anuladas. Se tendrá en cuenta también la originalidad y frescura de las propuestas, tanto en el tema, como en el tono y la forma de expresar los mensajes.

Se aceptará cualquier tipo de expresión, pero tendrá que ser siempre presentada en formato vídeo: cortos; videoclips; lipdubs; danza; poemas recitados o textos de reflexión leídos ante la cámara; presentación en vídeo de proyectos, fotografías u obras de arte; performances e intervenciones urbanas...

2. PARTICIPANTES

Pueden participar chicas y chicos entre 12 y 26 años de la Comunidad Autónoma del País Vasco en dos categorías:

1ª categoría: 12 – 17 años

2ª categoría: 18 – 26 años

Se puede participar de manera individual o colectiva, como centro educativo o como aula.

Si dentro del grupo hay una persona que supere los 18 años el proyecto pasará directamente a la 2ª categoría.

Las y los jóvenes menores de 18 años que se presenten al concurso deberán entregar cumplimentado el anexo 1 que se adjunta a las presentes bases.

3. MÁXIMO DE PROYECTOS A PRESENTAR

El número máximo de proyectos a presentar será de 3.

4. CONDICIONES QUE DEBEN CUMPLIR LOS PROYECTOS PRESENTADOS

Las propuestas deberán ser originales, sin haberse plagiado o usurpado a terceras personas. El proyecto no puede haberse presentado anteriormente a ningún festival o certamen.

Las piezas podrán ser presentadas en euskera, castellano, bilingüe, o en cualquier otro idioma, siempre que en este último caso se subtitule a euskera o castellano.

Los proyectos deben de tener una duración máxima de 10 minutos.

Se recomienda el uso de músicas libres de derechos de autoría (con licencias copyleft o creadas por vosotras). En caso de usar una canción con derechos de autoría, la participante asume el riesgo de que Youtube tome medidas contra el vídeo.

Todos los proyectos deberán presentarse en formato audiovisual, mediante un link a una plataforma de vídeos (Youtube, Vimeo, Blip...).

5. CÓMO PARTICIPAR

Las personas interesadas en participar en esta convocatoria deberán enviar su propuesta vía e-mail a jarrera@beldurbarik.org indicando la siguiente información:

Categoría en la que se participa:

Título de proyecto:

Link del proyecto:

Participante (nombre, sexo, edad):

Grupo (nombre de las personas que componen el grupo desglosado por sexo y edad):

Persona de contacto:

Dirección, población y provincia:

Teléfono:

Email:

Web & Facebook & Tuenti (Opcional):

*Si se participa como aula o centro, se requiere especificar el centro, municipio y curso, haciéndose el centro responsable de la gestión de las autorizaciones a menores.

*Los datos de nombre de la persona o grupo, categoría y municipio deberán aparecer también dentro del vídeo, y/o en su descripción en Youtube, Vimeo o la plataforma a la que se suba.

Adicionalmente al premio general, los municipios podrán premiar las mejores propuestas a nivel local, o definir premios específicos a través de diversas iniciativas, para tratar de impulsar y promocionar las propuestas seleccionadas. Por ello, en EIBAR:

PREMIO “EIBAR BELDUR BARIK” 2012: solo para personas empadronadas en Eibar

Inscripción:

Las personas interesadas en participar en esta convocatoria municipal deberán enviar su propuesta vía e-mail a berdintasuna@eibar.net enviando otra copia a jarrera@beldurbarik.org

6. PLAZO MÁXIMO DE INSCRIPCIÓN

El plazo de apertura del concurso será el 11 de junio y finalizará el 31 de octubre (inclusive).

7. PREMIOS

Premio 1ª categoría: 1.000€

Premio 2ª categoría: 1.000€

Premio Popular*: 300€

Los concursos o premios que organicen los diferentes municipios no excluirán la participación en este concurso.

*El premio popular es un premio que se otorga sobre todos los trabajos presentados de las 2 categorías.

EIBAR BELDUR BARIK 2012

Premios:

1ª categoría: 12-17 años: 300 €

2ª categoría: 18-26 años: 300 €

Estos premios son compatibles con los del concurso general

8. JURADO

La organización designará un jurado integrado por personas en representación de las instituciones vinculadas a este proyecto, mujeres feministas vinculadas con el mundo de la creación, la cultura, la educación y en el impulso de políticas de igualdad y lucha contra la violencia hacia las mujeres y personas ganadoras en representación de las y los participantes de la edición 2011. Su composición se dará a conocer en la web de Beldur Barik.

EIBAR BELDUR BARIK 2012

La organización designará un jurado integrado por personas relacionadas con el mundo del arte, el impulso de políticas de igualdad y lucha contra la violencia hacia las mujeres a nivel local. Su composición se dará a conocer al hacerse público el fallo. El jurado valorará todas las obras, pudiendo declarar el premio desierto.

9. FALLO

Una vez acabe el plazo de presentación de los proyectos el jurado deliberará sobre los trabajos presentados a las dos categorías haciendo público su fallo el día 24 de noviembre en los encuentros Beldur Barik.

El premio popular será otorgado al vídeo participante en las dos categorías que más votos reciba en la web www.beldurbarik.org. El sistema de votación se activará el día 6 de noviembre a las 08:00 am.

Todos los videos estarán disponibles para ser visualizados en la web. Los videos se subirán en riguroso orden de llegada.

Habrà dos fases:

1ª FASE: De todos los vídeos presentados a concurso, los diez que más votos hayan recibido entre el 6 y el 13 de noviembre (a las 24:00h.) pasarán a la segunda ronda.

2ª FASE: Los diez vídeos podrán intensificar la campaña para seguir sumando votos durante los días 15, 16, 17 y 18 de noviembre. Ganará el premio quien haya logrado más votos a día 18 de noviembre, a las 24:00h.

La votación se podrá seguir por la web de Beldur Barik y se difundirá también por Facebook, Tuenti y Twitter.

Si se detectan irregularidades en el proceso se podrá declarar el premio popular desierto.

Las decisiones del jurado serán inapelables e indiscutibles.

Complementariamente el jurado podrá seleccionar un conjunto de propuestas que impulsará y promocionará los diferentes espacios de Beldur Barik.

Todos los trabajos se exhibirán durante la Topaketa del 24 de noviembre.

EIBAR BELDUR BARIK 2012

El 22 de Noviembre, en el contexto del Día Internacional contra la violencia hacia las mujeres, se celebrará en Eibar el Festival EIBAR Beldur Barik, en el Salón de Actos de Portalea, donde se presentarán los trabajos locales y se dará a conocer el fallo del jurado, realizándose la entrega de los premios locales. Todas las personas participantes en el concurso local se comprometen a mostrar, actuar y/o presentar su trabajo en este encuentro, si la organización lo requiriera.

10. ASPECTOS LEGALES

Las participantes en el concurso, ceden de forma gratuita los derechos de comunicación pública, reproducción, difusión y transformación de los proyectos ya sea en catálogos, carteles y/o piezas promocionales de Beldur Barik, así como la publicación de las propuestas en el sitio web www.beldurbarik.org y en su canal de comunicación en las redes sociales tanto a nivel global como a nivel local.

Si la organización lo requiere, las participantes se comprometen a mostrar, actuar y/o presentar su obra/propuesta en la Beldur Barik Topaketa.

La organización del concurso no se hace responsable de aquellas propuestas que se remitan por las personas participantes y que pudieran violar los derechos de autoría de terceras personas, siendo aquellas las únicas responsables en caso de reclamación. Así mismo las concursantes deberán poder demostrar su autoría, en caso de que así lo requiera la organización.

La organización del concurso se reserva el derecho a declarar desierto los premios.

A la presente convocatoria le será aplicable la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de mujeres y hombres. BERDINSAREA, en cumplimiento de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, informa que los datos personales que Vd. nos proporciona serán incluidos en los ficheros automatizados de datos de carácter personal titularidad de esta entidad, cuya finalidad es la realización de tareas propias de la gestión municipal en el ámbito de sus competencias. Si lo desea puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiéndose a jarrera@beldurbarik.org

11. ORGANIZACIÓN

Organizado por BERDINSAREA, Red de Municipios Vascos por la Igualdad y contra la Violencia hacia las Mujeres, impulsada por EUDEL, con el apoyo de Emakunde, la Dirección de Atención a las Víctimas de la Violencia de Género

del Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales de Alava, Bizkaia y Gipuzkoa, así como con la colaboración del departamento de Educación del Gobierno Vasco, la Universidad del País Vasco (UPV/EHU) y EITB.

Más información en:
www.beldurbarik.org
jarrera@beldurbarik.org
Contacta con Eudel:
944.231.500
639.702.767

EIBAR BELDUR BARIK 2012

Para más información del premio local de EIBAR:

ÁREA DE IGUALDAD

Bista Eder Kalea, 10, 4. Piso EIBAR 20600

Tel: 943708440

Fax: 943708441

e-mail: berdintasuna@eibar.net

ANDRETXEA

Zezenbide Kalea, 9

Tel.: 943700828

e-mail: andretxea@gmail.com

<http://andretxea.kzcomunidades.net/>

<http://www.eibar.es/>

ANEXO 1.

AUTORIZACIÓN MATERNA Y/O PATERNA, TUTOR/A PARA LA PARTICIPACIÓN DE MENORES EN EL CONCURSO BELDUR BARIK

Dña/D....., mayor de edad, con D.N.I. nº.....y
D/Dña....., mayor de edad, con D.N.I. nº
.....y domicilio ennº teléfono.....en su
condición de madre/padre (o personas tutoras), y por tanto representantes
legales del/la menor.....con edad.....y con
email.....

MANIFIESTAMOS

Que a efectos del cumplimiento de lo establecido por la Ley Orgánica 1/1982 de 5 de mayo de Protección Civil al Derecho al Honor, la Intimidación Personal y Familiar y a la Propia Imagen

OTORGAMOS EXPRESAMENTE PERMISO para que nuestra/o
hija/o.....participe en el Concurso Beldur Barik, relativo a
la prevención de la violencia contra las mujeres aceptando las bases
establecidas en el mismo.

Todo ello firmamos en señal de consentimiento

En.....a.....de.....de.....

*Las personas que ostenten la patria potestad de la joven o del joven deberán firmar la autorización (Si son dos, las dos; en el caso de que la guarda y custodia la ostentará un único progenitor, valdrá con su autorización), en los casos de separaciones de hecho o de derecho y divorcio la persona que tenga atribuida la guarda y custodia.